

## Azkenean uztailaren 2an osatu da udal gobernu berria



Uztailaren 2an osatu zen ofizialki Zeraingo udal gobernu berria, goizeko 10:30etan udaletxean egin zen ekitaldian. Hauteskunde ondoren gertatu diren ezohiko gertakari guztiek eraginda, udal osaketaren ekitaldia ere ezohikoa izan zen. Herritarren babes zabalarekin eta komunikabideen ikusminarekin osatu zen datozen lau urtetarako udal taldea.

Aski ezagunak dira hauteskunde batzordeak boto kontaktetan izandako akatsaren ondorioz, PPri izendatutako zinegotziaren auziak Zerainen eragin dituen komeriak. Auzitegietako joan-etorrien ondotik, azkenean, eta 3 asteko atzerapenarekin, uztailaren 2an osatu zen ofizialki

Zeraingo udal-gobernu berria. Azkenean PPK hauteskunde batzordeak oker emandako zinegotzi kargua ez zuen hartu eta ofizialki honako lau pertsonekin osatu zen udalbatza: Jose Manuel Oria (alkatea), Itxaro Alustiza, Haritz Iztueta eta Andoni Alustiza.

Hala ere, herrian zerrenda bakarra osatzeko prozesuan zeraindarrek hautestontzietan erabakitakoari jarraituz, Joxe Mari Telleria, Aitziber Makazaga eta Arantzazu Muñoa ere udal taldean izango dira. Gainera, bosgarren zinegotzi ofizialaren kargua, Joxe Mari Telleriari dagokiona, berari emateko lanean dihardute hautetsiek. Animo eta zorte on guztioi!



# Andramari jaiak 2011

**G**ain-gainean ditugu aurtengo herriko festak. Hilabete baino gutxiago geratzen da Andramarietarako. XAGUARTEAK aurtengo jaien egitaraua aurreratzen die herritarrei:

## Abuztuak 13.

- \*Arratsaldeko 6etan: pilota txapelketako finalaurrekoak
- \*Arratsaldeko 8etan: ohiko gibel-jatea Liztormendi elkarteak

## Abuztuak 14: ANDRAMARI BEZPERA

- \*Goizeko 11etatik aurrera: umeentzat puzgarriak eta rokodromoa egongo dira plazan egun guztian
- \*13:30etan: haur-bazkaria
- \*16:30etan: jaialdia (mozorroak, antzerkiak...) eta jolasak
- \*Ondoren: merienda
- \*Arratsaldeko 8etan: pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.
- \*Segidan: sagardo-edana eta txekor-jana. Bitartean trikitilariak
- \*Gauetan: erromeria Unsain anaiekin goizaldera arte.

## Abuztuak 15: ANDRAMARI EGUNA

- \*Goizeko 9etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.
- \*Goizeko 11etan: Meza Nagusia
- \*Goizeko 10etatik aurrera: Andra Mari bola txapelketaren hasiera.

- \*Eguerdiko 12etan: pilota txapelketako finala
- \*Eguerdiko 12:30etan: txakolin dastatzea
- \*Arratsaldeko 5etan: bola txapelketaren bigarren saioa
- \*Arratsaldeko 6etan: herri kirolak.
- \*Arratsaldeko 7etan: 40 urtetik gorakoen VII. dantza txapelketa.
- \*Iluntzeko 7:30etatik aurrera: gazteen triki-poteoa trikitilariekin, eta mozo-rrotuta.
- \*Gauko 9etan: gazte-afaria
- \*Gauko 11etan: erromeria Trakets taldearekin.
- \*Goizeko 1ean: Mozorro gaua
- \*Ondoren: erromeria goizaldera arte.

## Abuztuak 16: SAN ROKE EGUNA

- \*Goizeko 9etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.
- \*Goizeko 10etan eta arratsaldeko 5etan: San Roke bola txapelketaren hasiera.
- \*Goizeko 11:30etan: Meza Nagusia
- \*Ondoren: herriko agintarien dantza-soka.
- \*Eguerdiko 13etan: gazta probatzea.
- \*Arratsaldeko 5:30etan: Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak
- \*Iluntzeko 8:30etan: Herri afaria, bertsolariak lagunduta.
- \*Gauko 12:30etan: Asto karrera
- \*Ondoren: erromeria Itzel taldearekin.

## Errementarirako proiektuak aurkezteko lehiaketa martxan jarri du Etorlurrek

Errementari Udalak erosi ostean, bertan egin beharreko lanak proposatzeko proiektu edo ideia lehiaketa martxan jarri du Diputazioaren Etorlur elkarteak. Proiektuak aurkeztu nahi dituztenek abuztuaren 19 arteko epea izango dute. Norbaitek informazio gehiago nahi badu, Etorlurren web-gunean jaso dezake.

## Ordutegi berriak medikuaren udako kontsultarako

Medikuaren kontsultaren udako ordutegian hainbat aldaketa izan dira. Arakidetzak dioenez, "ordezkapen arazoak" direla eta, honela geratzen da udako ordutegia. Uztailearen 18tik abuztuaren 12ra ohiko ordutegia izango da. Abuztuaren 16, 17, 18, 19, 23, 25, 29 eta 31n eta irailaren 1ean eta 2an egongo da irekita goizeko 8etatik 10etara. Itxita berriz abuztuaren 22, 24, 26 eta 30ean. Egun horietan larrialdiak Beasaingo anbulatorioan atendituko dituzte. Bertako telefonoa 943 02 77 00 da. Edozein larrialdi, behar edo informazio gehiagorako telefono horretara deitu.

## San Joan bezpera eta Mutiloara jaitsiera



Ekainaren 23an, herri giro ederrean ospatu zen San Joan bezpera. Uztailearen 1ean berriz, Mutiloako sagardo probaketarako jaitsiera ere jendetsua izan zen.

## Bertso-udalekuak aterpetxean



Bertsozale elkarteak antolatutako bertso-udalekuak herrian ditugu aurtengoan. Uztailean izan da lehen txanda eta bigarrena abuztuaren 19 izango da.

## Trailua

**E**z nuen hitz honen berri. Ez nuen, behintzat, gogoan. Inoiz irakurria izango dut behar bada, han edo hemen; entzuna ere bai agian. Zer adierazi nahi duen ez nuen ordea gogoan. Informazio zabala jaso du Elenak *traillu* edo *trailu* horretaz. Herriko agoazilak, Xabier Dorronsorok, piztu du argia. Zerran egurrak ebakitzen ari zirelarik, honela esan omen zioten: "E(g)izak hortik trail(l)u bat". Xabierrek Elenari komentatu nonbait, eta honek ere hitza ez ezagutzen. Hortik hasia da gaurko hitz honen peskiza. Galdezka hasi da Elena, herrian, eta berehala konturatu da hainbatek ondo ezaguna duela hitza. Joxe Manuel alkateak, Xanti Muñoak eta Iñaki Kozmendik, esate baterako, entzun orduko baietz esan diote: hitz ezaguna dela hori Zerainen, bere adinekoren artean bederen. Hala esplikatua izan behar dio hitzaren adiera, Elenari, zeraindar horietariko batek: "egurrak zerratzerakoan, bi metroko trailuak edo hirukoak egiten genituen". Hortik atera du Elenak, lehen hurbilketa moduan, hitzaren definizio modu hau: neurri zehatzeko enborra. OEHra ere hurbildu da, hitzak zer adiera ote dituen jakiteko. Halaxe egin dut nik ere gero, argitasun osagarria bilatu nahirik. Harritu ere egin naiz: hedadura zabalekoa da *trailu* hori.

Leku askotan erabiltzen da (edo erabili izan da), alegia: Bergara aldeko bizkaieran dokumentaturik dauka Martin Elexpuruk, batetik, eta Nafarroan zein Lapurdin adibide ugari daude hitz horrenak. Gipuzkoan ere bai, jakina. Batean *traillu* ageri da, bestean *treillu*, hurrengoan *treillo*, bada tartean *trillu* modukorik ere, baina dudarik ez dago: zabal hedaturiko hitza dugu *trailu*. Zabal hedatua eta gauza askototarako erabilia, edo erabili izandakoa. Zer adiera (izan) du *trailu* hitzak, han-hemen? Erabilera ezagunena, zabalduena, ez da Zerain alde honetan jasotakoa, garia jotzearekin zerikusia duena baizik. Honela dio OEH

hiztegiak: "mallo de trillar", "mayal, palo con que se desgrana el trigo en las eras". Elexpuruk Bergaran jasotako adibideen argitan, "abereek tiraturik larrainean garia jotzeko erabilia". Hori da beraz, hiztegiaren arabera, *trailu* hitzaren adiera zabalena, lekuz eta autorez ezagunena. Antzeko adiera izan liteke Elexpuruk jasotako *trillu* honena ere: "apero de labranza que se utilizaba para dar la primera pasada a la tierra arada".

Beste adiera du, ordea, Zeraingo edo Zerain inguruko *trailu* hitzak. Neurri zehatzik gabeko enbor zatia. Hori ere ba al dator OEHn? Justu-justu hori ez, baina aski antzeko bai: badator. Honela dio, izan ere, hitz-sarrera horren hirugarren adierak: "tronco de árbol destinado a la sierra". Bete-betean ez bada ere hurbilago, aurreko adierak baino askoz hurbilago, sartzan da definizio hori Xabier Dorronsorok jasotako adiera-esparruan. Kurioa, benetan kurioa eta are harrigarria, zera da. Antzeko definizio hori urruti, hemendik benetan urruti, jasoa dagoela hiztegian: Pirinio inguruko Salazar ibarrean (euskarazko Zaraitzu zaharrean) eta Erronkarin. Mendi-tarte ezkutu haietan jasotako hitz-adiera, beste inon dokumentatu gabea, hona hemen Zerainen, aski adiera hurbilean, oraindik bizirik. Zer pentsatua ematen du kasualidade-itxurazko horrek. Ez dago hor kasualidade handirik, seguruenen. Esparru formal, jaso, liburu-girotik kanpoko hainbat hitzen adiera, behin-lakoa euskaldun-jendearen eguneroko bizimodu arruntarekin lotua, uste baino ahulago dokumentaturik daukagu hiztegitan. Ahul doku-



mentaturik dauzkagu hitz edo adiera horiek eta, berehala jasotzen ez baditugu, betiko galduko zaizkigu. Zerainen ere ez dakite herritar guztiek, izan ere, hitz honek zer esan nahi duen. Elenak egindako galdeketaren arabera, hitzaren berri dutenak 50-55 urtetik gorakoak dira oro har. Hortik beherakoek (salbuespenak salbu) apenas hitza ezagutzen duten. Hori bakarrik ez: hitza gizonezkoen artean da batez ere ezaguna. Emakumezkoen artean, 55 urtetik gorakoen artean ere, apenas hain ezaguna den.

Ondorio argia eta logikoa ematen digu Elenaren ikerlantxo horrek, bere mugatuan: hitz baten erabilera ez dago zerutik zintzilik. Hiztunen esku dago, erabiltzaileen esku. Beren esku dago eta, argiago esateko, hiztun horien adierazpen-beharren arabera da. Zerran egiten ez duenak hitz gutxiago behar du zerra kontuaz, aldi behin (zer esanik ez egunero) hartan ari denak baino. Herri berean (eta, are, teilape berean) bizi izanik ere, badira hortaz lan-espezializazioak eragindako hitz eta adiera multzo diferentzialak. Horietarikoa dugu, itxura osoz, Xabierrek berrikitan entzundako *trailu*, Erronkari eta Zaraitzu aldeko aizkolari-zerrariak antzeko adieran erabili ohi zutena eta gaur, seguruenik, ibar-zokondo eta mendi-hegal eder haietan galdurik dagokeena.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



## Xagu-txoko



Babesetik

EKAINA	al	ar	az	og	or	lr	ig
			<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
Euria (l/m)			1	1	0	0	10,5
C° altuena			17	19	22	26	26
C° baxuena			9	12	14	14	14
	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>
Euria (l/m)	20	11	2,5	2	3	0	0
C° altuena	22	17	19	25	17	24	31
C° baxuena	15	12	10	9	11	9	11
	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	1,75	2	0
C° altuena	28	31	30	20	32	22	29
C° baxuena	12	15	16	15	10	12	11
	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>
Euria (l/m)	0	0	2,5	0	0	0	0
C° altuena	34	32	18	23	27	33	39
C° baxuena	11	14	16	13	8	10	16
	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>			
Euria (l/m)	1,5	1	1	0	GUZTIRA : 83,25L		
C° altuena	39	18	18	20	ALTUENA: 39°		
C° baxuena	21	17	13	10	BAXUENA: 8°		

### Ekaina uda giroan

Udaren sarrera izan dugu ekainean. Temperaturei begirada bat emanez gero, egunez hor nonbait ibili garela, baina gauez lo-giro ederrak izan ditugula ikusten dugu. Hori bai, San Joan ondorengo bero ito horiek kenduta. Euri gehiegi ez du egin, baina azken urteetako antzera. Kalabazinak loretan (argazkian ikusten denez) eta fruituak ere izan ditugu ekainean.



### Jubilatuen eskurtsioa Pasaiara



Udaleko Ongizate sailak antolatuta, urteroko jubilatuen eskurtsioan, Pasaiara izan ziren aurten herriko erretiratuak. Ontzigintzaren prozesua ezagutu zuten.

### Lasurtegi erreka ura aztertzen



Uztaileko denbora libreko ekintzei lotuta, eta *Ibaialde* programaren barruan, herriko haur eta gaztetxoak Lasurtegi erreka ura aztertzen aritu ziren uztailaren 7an. Argazkian, herriko gaztetxoak Larraondoko zerrategiaren ondoan ageri dira.

### Rallya uztailaren 23an

Uztailaren 23an, larunbata, Azpeitiko *Klasiko deportiboen VII. rally-a* Zeraindik pasako da. Gaueko 11ak aldera dago aurreikusita karreraren pasoa. Errepidean hainbat mozketak izan daitezke iluntze horretan herri inguruan.

### Ehun milak pasa dira

Beasaindarrek antolatutako *Ehun Milak* lasterketaren bigarren edizioa uztailearen 16an eta 17an pasa zen herritik. Larunbat goizean hasi eta igande eguerdiraino pasa ziren korrikalariak.

